

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joseba Beobide Arburua

*Zumaja,
Gipuzkoa
(1937-2023)*

Aurkibidea



Biografia



Gerra garaian jaio zen San Pedro kalean. Julio Beobide eskultore ezagunaren 4 seme-alabetatik hirugarrena. Zuloaga, Uranga eta Txomin Agirrerren hurbilekoa izan zen bere aita; gaur egun bere izena daraman pasealekuan dagoen Kresala etxean zuen teilerra. Josebak Lekarozko (Nafarroa) kolegioan batxilerra ikasi eta Donostiako seminariora joan zen; 8 urteren ostean, 1962. urtean, apaiztu eta Pasai Donibane elizaren ardura hartu zuen. 1966. urtean, Ternuara joateko eskaintza egin zioten bertako euskal arrantzaleen interprete lanak egiteko, Pasaia zen bakailaotako portu garrantzisuenetakoa eta. Guztira 22 urtez egon zen arrantzaleen zerbitzura Saint Pierre et Miquelon-en eta Saint John`s-en. Bertako bizipenetan oinarrituta, *"Hombres de Terranova. La pesca del bacalao. 1926-2004"* liburua argitaratu zuen Rosa García Orellánekina batera. Handik bueltatu eta Pasaia San Pedron eta Donibanen egon zen Santurtziko Stella Mariseko ardura hartu aurretik.

Zintak

ZUM-099

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Data:** 2012-04-24
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

ZUM-100

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea - Gonzalez, Andere

- **Data:** 2012-04-24
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Josetxo izatetik Joseba izatera

- **Erref:** ZUM-099/001
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

25 urterekin Pasai Donibanera joan zen apaiz. Han beste apaiz gazte bat zegoen, Joxe izenekoa. Berari ordura arte Josetxo deitzen zioten, baina jendea ez nahastearren, berari Joseba deitzea proposatu zuen eta ordutik hala ezagutzen da.

2. Aita, Julio Beobide, zumaia petoa

- **Erref:** ZUM-099/005
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:04:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zumaian jaio zen eliza ondoan dagoen San Pedro kalean. Aita bertakoa zen, zumaia petoa, gainera. Ama Zumaian jaio arren Donostian hazia zen. Beobidetarrak. Aita eskultorea zen eta seme-alabak ze ordenatan jaio ziren azaltzen du umorez.

3. Aitaren, Julio Beobideren, obrak

- **Erref:** ZUM-099/006
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bere aita, Julio Beobide, eskultorea zen. San Bizente elizan aita 29 urterekin egindako kristo bat dago. `Bellas Artes´ museoko sarrera ondoan ere aita egindako Zuloagaren busto handi bat dago. Zumaian dituen obra gehiago aipatzen ditu.

4. Julio Beobide pasealekua, aitaren omenez

- **Erref:** ZUM-099/008

- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:06:12. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Aita hil ostean, itsasargirantz doan pasealekuari Julio Beobide izena jartzea erabaki zuen Udalak, aita asko ibiltzen zelako bertan paseatzen.

5. Aitarenekin, Julio Beobideren, ibilbidea

- **Erref:** ZUM-099/011
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Aitak Deustuko salesiarretan ikasi zuen marrazketa. Bertako salesiar galiziar batek esku ona zuela ikusi zuen eta orduan eskultore izateko ikasten hasi zen. Aita gutxi irten zen Zumaiaetik, oso herrizalea zelako. Abertzale sutsua ere bazen. Parisen eta Erroman izana zen, hala ere. Eta Madrilan `Bellas Artes´ ikasi zuen. Gero bertako kide ere egin zuten denborarekin.

6. Aitak, Julio Beobidekin, tailerra zuen Zumaian

- **Erref:** ZUM-099/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

<p>San Pedro kalean bizi izan ziren beti. Aitak tailerra zuen Kresalan eta egunero joaten zen goiz-goizetik. Txakurra ere beti izaten zuten.</p>

7. Amak atera zuen familia aurrera

- **Erref:** ZUM-099/015
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Amak etxean egiten zuen lan eta bera izan zen familia aurrera atera zuena. Aitak diru-konturik ez zuen jakiten. Zuloagak askotan esaten zion gehiago kobratu behar zuela bere lanagatik.

8. `Kresala´ izena, Txomin Agirreren liburuagatik

- **Erref:** ZUM-099/017
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:11:35. **Bukatu:** 00:12:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Zuloagak Santioko hondartza ertzean zuen bere txaleta. Julio Beobidek, berriz, justu beste aldean zuen lantokia. `Kresala´ izena itsaso ondoan dagoelako izan dezakeela dio; baina berak uste du Txomin Agirreren izen bereko liburuagatik jarri ziola aitak izen hori etxeari. Txomin Agirre Zumaian bizi izan zen urte askoan eta harreman handia zuen euren familiarekin.

9. Francorentzat kristo bat egin zuen aitak

- **Erref:** ZUM-099/018
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:12:54. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bere aitari izena eman zion obra aipatzen du. Zuloagaren kaperan aitak egindako kristo eder bat zegoen, gero Zuloagak berak polikromatua. Franco etorri zen batean kristo hori ikusi zuen eta berarentzat beste halako bat eskatu zuen. Aitak kristo hura egin eta Madrilera eraman zuen, baina Francori eskua ez ematearren, alde egin zuen azkar.

10. Aitaren kristoa "Valle de los caídos"-en

- **Erref:** ZUM-099/020
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:15:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Aitak Francoren enkarguz egindako kristoa "Valle de los caídos"-era eraman zuten gero. Oso ondo jarria omen dago, baina aitak ez zuen nahi izan han sartzerik, eta ez zuen sekula ikusi.

11. Hamar urterekin Lekarozko kolegiara

- **Erref:** ZUM-099/022
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Zumaiak 3.500 biztanle inguru zituen bera jaio zenean. Gurasoek, esfortzu handia eginda, bera eta anaia izen handiko kolegio batera bidali zituzten, Lekarozera. 10 urte zituen berak. Amak eramaten zuen etxeko ekonomia. Gauzak saldu behar izan zituzten semeak kolegiara bidaltzeko. Han batxilerra egin ostean seminaria joan zen.

12. Apaiztu ondoren lehenbizi Pasaia eta gero Ternuara

- **Erref:** ZUM-099/024
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Lekarozko kolegiotik Donostiara joan zen, seminaria. Zortzi urte egin zituen han, Filosofia eta Teologia ikasten. Apaiztu ondoren Pasaia Donibanera joan zen. Hiru urteren ondoren, Ternuara joateko eskaintza jaso zuen eta hara joan zen. Hogei urtetik gora egin zituen Ternuara joan-etorrian.

13. Ternuan, hango marinel euskaldunen apaiz

- **Erref:** ZUM-099/025
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:19:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Bera Ternuara joan zenean 3.000 arrantzaletik gora zeuden han. Barku asko Pasaia joandakoak ziren, baina marinel gehienak galiziarrek izaten ziren. Gehienetan lehorrean egoten zen bera, baina itsasoan ere ibili izan zen behin baino gehiagotan.

14. Saint Pierre et Miquelon-en euskal kutsua

- **Erref:** ZUM-099/027

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Saint Pierre et Miquelon irlan egon zen. Euskal kutsua omen zuen bera joan zenean 1963 inguruan. Frontoia ere bazegoen eta goian "Zazpiak bat" jartzen omen zuen. Euskaldun batek egina omen zen frontoia. Euskaldunak, bretoiak eta normandoak omen ziren bertako bizilagunak. Handik Saint John`s-era joan zen. Guztira 20 urtetik gora egin zituen.

15. Ternuan, arrantzaleen zerbitzura

- **Erref:** ZUM-099/029
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

<p>Arrantzaleen zerbitzura egotea zen bere lana Ternua inguruan. 3000tik gora arrantzale zeuden, gehienak galiziarrek, baina euskaldunak ere asko. Euskaldunak ondo ikusita zeuden hasieran; gero hemengoek arrain larregi harrapatzen zutela-eta saltsa sortu omen zen. Mapan erakusten du irla bakoitza non zegoen.</p>

Transkripzioa

<p>- Han zein zan zure zure lana edo eguneroko…?</p>
<p>- Bai, bueno, ba, bai, bai, ba arrantzalien zerbitzun egotia. Esaten dizut /esateizut/ 3500 zeuden galleguak eta euskaldunak, hartuta danak; gehien-gehienak mariñelak galleguak zian, baiño gero euskaldunak´e bai. Euskaldunak gehio zian ofizialak, batez ere, Donostiko batzuk bazeuden, Ondarru eta Lekeitioko zeak, urte asko eraman dituztenak han, e. Eta ni egon nintzan, ba, haien zerbitzuan, lehorrian, fabore gehio egiten zalako, e? medikuangana juteko, e... uf... teknikoakin laguntzeko han zean reparazio gauzak zeudenian eta... bai. Baiño Saint Pierre izan da guretzako ba gure bigarren etxia bezela. Oso ondo hartuta zeuden. Gero gauza pixkat zea egin zan, nahastu egin zan, atera zianian, ba, zea, hemengo barkuak danak asko harrapatzen zutela, gehiegi, eta"esquilmal" ta gauza hoiek danak eta orduan, ba, zeak, ez giñan han ondo ikusiak izan, baiño hasieran bai. Baiño Saint Pierren bai, e. Saint John's-en pixkat diferencia izandu zan, baiño Saint Pierren bai. Eta hor da uharte hortan, Terranovako uhartian, Newfoundland, e? hemen daona, hoixe, Newfoundland. Beitu, esango dizut non daon. Aber, hemen ixkiña hontan Saint John´s dao, e? Saint John's. Eta hemen behian, honen, mutur honen bi zea txikiyago hoiek dia San Pierre et Miquelon. Eta hor izandu zian euskaldunak, bai. Hau ya Port au Port bat portua ta hau da [estuekin egin dioenak euskaldun arraza] baiño hau hamasei, hamasei-hamazazpigarren mendekuak dia hauek danak, e? Beaien... bai, ba, hauek

danak, euskaldun izen kutsuko izenak port au choix portutxoa hemen da. Port au choix, beaiek inglesak aldatu izena…</p>

16. Ondarroako bakailao-ontzian Ternuara

- **Erref:** ZUM-099/031
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

1962an Pasai Donibanen egon zen apaiz. Han hiru urte inguru egin ostean, 1966an Ondarroako `Gure ama Antiguakoa´ bakailao-ontzian joan zen lehenbizikoz Ternuara.

17. Bakailao arrantza Saint Pierre-n eta Saint John`s-en

- **Erref:** ZUM-099/033
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:26:21. **Bukatu:** 00:27:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Sarearekin egiten zuten bakailaotan Saint Pierre-n. Itsasontzi ugari egoten ziren. Saint John`s-en tradizio zaharragoa zuten arrantzurako. Han bouak egoten ziren, barku handiagoak. Gerra zibilean ere erabili ziren Ternuan arrantzuan ibilitako bou batzuk.

18. Ternuako bakailao-arrantza bukatzeko arrazoia

- **Erref:** ZUM-099/035
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Hemengo arrantzaleek bakailao gehiegi harrapatu zutela esaten hasi ziren eta pixkanaka flota kanpora bidali zuten Ternuatik. Gero debekatu egin zuten bertaraino sartzea. Orduan Pasaiara itzuli zen.

19. Ternuan arrantzaleen emazterik ez

- **Erref:** ZUM-099/040
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:31:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko bizimodua
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Pasaiatik Ternuara zuzenean joanez gero bederatzi egun inguru behar izaten ziren bidaian. 3000 marineletik gora egoten ziren han. Arrazoiren batengatik denbora luzerako han geratu behar zirenean, emazte batzuk joaten ziren bertara, baina normalean ez, diru asko behar zen eta. Gainera, itsasontziak txikiak ziren eta ez zeuden prestatuta.

20. Euskal festa ospatzen zen urtero Saint Pierre-n

- **Erref:** ZUM-099/043
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:33:54. **Bukatu:** 00:36:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Saint Pierre-n ba omen zen iparraldeko gizon euskaldun bat, baina bera joan zenerako jada hila zen. Hala ere euskal kutsua nabari zen; esaterako, euskal festa ospatzen zuten urtero. Euskal festa horietako batean pilotan txapeldun geratu omen zen bera. Bazegoen euskal sentimendu bat.

21. Garai batean bale-arrantza; gero bakailaoa

- **Erref:** ZUM-099/046
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:38:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Bera hara joan zenean, arrantzaleak bakailaotara joaten ziren Ternuara. Baina hara joandako lehen euskaldunak baleak arrantzatzen joan ziren, XIV-XV. mendeetan. Baleen koipea oso preziatua zen. "Balaena biscaiensis". Bakailaotan zebiltzanek ere ikusten omen zituzten baleak tarteka, urrutiratzen zirenean.

22. Bakailao-ontziak Pasaiatik; marinel asko galiziarrek

- **Erref:** ZUM-099/048

- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:40:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Mutrikuko batek urte asko egin zituen sukaldari lanetan Ternuan. Ofizial gehienak euskaldunak ziren, Donostiakoak, Ondarroakoak eta Lekeitiokoak. Bakailao-ontziak Pasaiaiko portutik bakarrik ateratzen ziren garai hartan. Barkuak nolakoak izaten ziren. Marinel gehienak galiziarrek izaten ziren.

23. "Hombres de Terranova" liburua argitaratu zuen

- **Erref:** ZUM-099/052
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

Laburpena:

Pasaiaiko Ternuako flota galdu zela ikusi zuenean, liburu bat idaztea erabaki zuen. "Hombres de Terranova" liburua argitaratu zuen Rosa García Orellán antropologoarekin batera. Lan hori aurrera ateratzeko Pasaiaiko portuko lehendakariak laguntza handia eman zien. Harrera ona izan zuen liburuak Ternuan egondako jendearen artean.

24. Pasaiaitik Santurtzira, "Stella Maris"en ardura hartzeko

- **Erref:** ZUM-099/055
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:47:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Ternuako flota gutxitu zenean Pasaiaira itzuli zen. Han zegoela, Santurtziko kapilaua, Patxi Otamendi bilbotarra, hil egin zen eta Karmelo Etxenagusia gotzainak bertara joateko eskatu zion, "Stella Maris"en ardura hartzeko. "Stella Maris" eliza katolikoak mundu guztiko itsasgizonentzat egiten dituen zentruak biltzen dituen gunea da. "Stella Maris"en gunea ezberdinak aipatzen ditu; ez omen daude asko Espainian.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com